

25916 Hizkuntzaren Didaktika (eta Atzerriko Hizkuntza):

Juan Abasolo

2023/2024

E-mail: juan.abasolo@ehu.eus

Telefona: (+34) 94 601 7567

Tutoretzak: <https://labur.eus/JAbasolo-tutoretzak>

Bulegoa: 3S40B

Web: labur.eus/HD-HHapunteak

Telegram: [JuanAbasolo](https://t.me/JuanAbasolo)

Klaseak: As 08:30-11:00 - Eg 11:00-13:30

Ikasgela: 2GA 1S09G

Ikastaroaren deskribapena

Ikasgai hau urte osokoa da, lehenengo lauhilekoko zatian *Hizkuntzaren Didaktikaz* arituko gara eta bigarrenean *Atzerriko Hizkuntzaz* arituko zarete. Honako gida honek Hizkuntzaren Didaktika atalaz dirautso eta informazio gehiena ikasgaiaren alderdi komunak edo Hizkuntzaren Didaktikari soilik dagozkionari buruzkoa izango da.

Ikasgaiaren atal biak gainditu behar dira ikasgaia osorik gainditzeko.

Ikasturtean bertan ohiko deialdian alderdi bat gainditu ez duenak ez-ohiko deialdian soilik zati hori egin beharko du. Baina **hurrengo deialdietarako ez da gordeko notarik**.

DAL bitan arituko zara ikasgaiaren (5. DAL eta 6. DAL), **biak gainditzea ere ezinbesteko baldintza** da ikasgaia osotasunean gainditzeko.

Ikasgaiaren helburuak

1. Hizkuntzak Haur Hezkuntzako curriculumean.
2. Komunikazioaren garapena bizitzako lehenengo urteetan, familian eta eskolan.
3. Ahozkotasunaren ezaugarriak. Ahozko ulermena eta adierazpena lehenengo hizkuntzan eta bigarren hizkuntzan.
4. Ahozko diskurtsoaren generoak Haur Hezkuntzan.
5. Ahozkoa ikasteko eta garatzeko irakaskuntza estrategiak lehenengo hizkuntzan eta bigarren hizkuntzan. Hezkuntza egoerak eta jarduerak.

Beharrezko irakurketak

Dokumentu honen amaieran agertzen dira erreferentziak zein bestelako irakurgai batzuk ere. Beharrezkoa izango duzu eGelan dauden apunte erako testuak lantzea zein asterik aste aipatzen direnak.

Ikasgaiaren politika

Oinarri-oinarrian: testuak irakurri eta zalantzak argitzen ahalegindu. Lanak egiten dituzunean, hori eginaz **zer ari zaren ikasten aztertu**, amaitutzat noiz jo daitekeen pentsatzen ibili baino, helburua zerbait ikastea bailitzan.

Gainditzeko bidea

Hizkuntzaren Didaktikaren ataleko azken emaitza honela banatuko da

- Emaitzaren % 10 disziplina arteko lanari dagokio.
- Emaitzaren % 40 egin beharreko lan praktikoen bitartez kalkulatu da. Horrelako asko talde lanak izango dira, besteak beste taldean egin beharreko proiektu bat ere.
- Emaitzaren % 50 ezagutza teorikoez egingo den azken azterketak zehaztuko du.

Atal guztiak gainditu beharrekoak dira. Atalen bat gainditzeke geratuz gero, atal horretako nota, $x/10$, hartuko da azkentsat.

Irakasgaia gainditzeko **ezinbestekoa da hizkuntza koherentziaz, zuzentasunez eta egokitasunez erabiltzea**, ahoz eta idatziz.

Azken ebaluazioko ikasleek azken azterketan talde lanei legozkiekeen atalaren inguruko itaunak garatu beharko dituzte; horretarako komenigarria da lanok egitea, kalifikaziorako izango ez balira ere.

Jakina, **ikasgaia osotasunean gainditzeko Atzerriko Hizkuntzari dagozkion atalak ere gainditu beharrekoak dira**, zati biak ikasturte honetan.

Bertaratzearen inguruan

Bertaratzearen inguruko segimendua egingo du irakasleak helburu didaktikoekin.

Ikasgaiaren inguruko baliabide pisutsuak-eta partekatze [Telegram](#) plataforman [kanal](#) eta talde bat egingo dira (2.GAraiko hori). Horietara batzeko derrigorrik ez dago, baina bat-bateko mezularitza denez, ezbeharren berri zein bestelako momentuko jakingarri ez hain formalena emateko bide hori erabiliko da.

Ikasleak klasera berandu sartzaren inguruan

Ez da onargarria klasea hasi eta gero bertara sartzea.

Baina jakin badakigu ezbeharrek ere badirena eta zerbaitek eroan zaitzakeena klasea hasi eta gero sartu behar izatera. Horrelako kasuan bazaude, izan kontuan ahalik eta gutxien igarri behar dela zure etorrera, jesarlekua soinurik egin gabe mugituz eta, **batez ere, berbazko komunikazioa ekidinez**.

Korreo elektronikoaren inguruko politika

Korreo elektronikoak (ikasleek zein neuk) [netiketa](#) segituaz idatzi beharrekoak dira. Netiketaren kontzeptu bera jarrerazko edukia ere bada gaitasun komunikatiboaren baitan.

Korreo instituzionala asteen batean zabaltzeko ohitura dut, hori baita SPAMa-eta kudeatzeko neuk darabilan modua. Beraz, **premiazko komunikazioetarako ez da eraginkorra**.

Beharpenak eta deskontuak

Entregatze data baino 48 ordu beranduagora arte hartuko dira lanak. Lan horien azken emaitzaren %60 baino ez da zenbatuko, hau da, %40ko deskontua aplikatuko zaie notari. Hori baino beranduago aurkeztutakorik ez da kalifikatuko eta 0 emaitza izango luke beranduago aurkeztutako horrek.

Behar ona eta behar perfektua elkarren arerioak dira.

Zintzotasunik gabeko jardunbide akademikoak

Legez eta [araudiz](#) debekatua da kopia. Plagioren bat detektatuz gero, lanak 0 emaitza hartuko du¹, ez da zuzenduko eta, plagiaren tamainaren arabera, denuntziatu ere egingo da.

plagio iz. Besterenak diren obren kopia edo imitazioa, norberak eginak balira bezala azaltzeko egiten dena. *Errealitateak, baita garratzenak ere, pasarte literario gorenen plagioa dirudi askotan.*

– Euskaltzaindiaren Hiztegia

Zintzotasun falta ere bada norberak lanik egin ez eta taldekideek egindakoaren bizkar izena ezartzea. Hori denok jakin badugu ere, gogoratu beharra egoten da inoiz.

¹Talde lanetan ere 0 emaitza hartuko dute plagiadun lanek

Egutegia

Honako gaiok eta baliabideok erabiliko dira Hizkuntzaren Didaktikako eskolan. Lau datu mota nabarmentzen dira segidako puntuetan: lantzen den gaia, irakurgaiak, egin beharreko lanak, DALari dagokion informazioa.

Orientabidetzat hartu behar da hurrengo zerrenda, **ez beza ahaz ikasleak**.

Astea 01, 09/14: Aurkezpen eguna

Egun honetan ikasgaiaren lehenengo zatia eta 5. DAL aurkeztuko dira.

Irakurgaia:

Beharrezko baliabideak izango dira ikasgaiko eta 5. DALeko gidak, **1, 2**, eta ikasleak bere kabuz aurkitu eta landu beharreko haurrentzako ipuinak.

Hickman, D., L. Klein, C. F. Britain), et al. (1994). *Baby It's You. Volume One, In the Beginning., First Steps*.

Holzwarth, W. and W. Erlbruch (2019). *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*. Trans. by K. Izagirre. Pontevedra: Kalandraka. ISBN: 978-84-95123-79-4.

Tough, J. (1996). *El lenguaje oral en la escuela: una guía de observación y actuación para el maestro*. Espainiera. [2. arg.]. Aprendizaje 34. Madrid: Visor. ISBN: 978-84-7774-034-6.

Ungerer, T. (1961). *Die drei Räuber*. German. München: G. Lentz.

DAL: Taldeak sortu. Analizatu eta justifikatu liburuen aukeraketa

Oharrak: Klase egun hau bakarria izango da HH3 osorik egongo dena.

Astea 02, 09/18 - 09/21: Zer da Hizkuntza | Hizkuntzalaritza

Irakurgaia:

Barreña, A. (1994). "Chomskyren arauak eta hizkuntz jabekuntza". In: *Elhuyar aldizkaria* 1994, pp. 25-31.

Egin beharreko **lana:**

Testuaren ulermenerako gida bete

DAL:

Tutoretza.

Lehenengo eranskina beteta

Oharrak: -

Astea 03, 09/25 - 09/28: Hizkuntzalaritza

Irakurgaia:

Barreña, A. (2012). "Fonologiaren, lexikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren garapena haur euskaldunengan". In: *Hizkuntzaz jabetzen (0-6)*. Vol. 16. Jardunaldiak. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, pp. 67-107. ISBN: 978-84-15508-08-3.

Garcia, I., A. Barreña, M. J. Ezeizabarrena, et al. (2014). “Haur euskaldunen komunikazio-garapena neurtzen 30-50 hilabete bitartean: MacArthur-Bates CDI-III tresnaren euskal bertsioa”. In: *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria* 88, pp. 33-72. ISSN: 1130-5738.

Egin beharreko **lana**:

Hizkuntza alderaketa.

Irakurgaiak landu (datorren astean aurkeztu).

DAL: Aste honetan ordu bi emango dizkiogu gure ikasgaiari. Egin behar ditugunak:

Lan intragrupala. Hirugarren eranskinaren osaketa.

Oharrak: -

Astea 04, 10/02 - 10/05: Nola ikasten du umeak hizketan | Proiektuaren aurkezpena

Irakurgaia:

Guibourg, I. (2000). “El Desarrollo de La Comunicación”. In: *Didáctica de La Lengua En La Educación Infantil*. First. Síntesis, pp. 13-42. ISBN: 84-7738-799-0.

Tough, J. (1996). *El lenguaje oral en la escuela: una guía de observación y actuación para el maestro*. Españiera. [2. arg.]. Aprendizaje 34. Madrid: Visor. ISBN: 978-84-7774-034-6.

Egin beharreko **lana**:

Euskararen jabekuntzaren denbora lerro azaldua (aurreko asteko testua).

Proiekturako egutegi posiblea zehaztu.

DAL: Lehengo entregagaia.

Oharrak: Guibourg eta Toughen irakurgaiak aukeran dago noiz irakurri, proiekturako dira-eta.

Astea 05, 10/09 - 10/12: Hizkuntza patologiak

Irakurgaia:

Fernandez, B. (2012). *Hizkuntza patologiak*.

Egin beharreko **lana**:

Taldeka berbatu gai bat sakontzeko irakaslearekin, hizkuntza patologien inguruko lanketa egiteko

DAL: Tutoretza. Lehenengo eranskinen azterketa eta egin beharreko hobekuntzak.

Oharrak: Hemendik aurrera azken asteko proiektua garatzen joan beharra dago.

Astea 06, 10/16 - 10/19: Hizkuntza patologiak | Ahozko hizkuntza haur hezkuntzan

Irakurgaia:

Huarte, M. and J. Ozerinjauregi (2012). “Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean”. In: *Hizkuntzaren jabetzaz (0-6)*. Bilbo: Mendebalde Kultur Elkarte, pp. 183-208.

Egin beharreko **lana**:

Taldeka patologien inguruko gaia aurkeztu.

DAL: Entregagai kalifikagarria.

Oharrak: -

Astea 07, 10/23 - 10/26: Ahozko hizkuntza haur hezkuntzan

Irakurgaia:

Antzuolako HPko HH eta LHkotaldea (2010). “Niños y niñas investigadores: ¿de qué hablamos?”. In: *Los proyectos de trabajo en el aula: reflexiones y experiencias prácticas*. Bartzelona: Graó. Chap. Los proyectos de trabajo en el aula: reflexiones y experiencias prácticas, pp. 29-42. ISBN: 978-980-251-234-8.

Bigas, M. (2000). “El lenguaje oral en la escuela infantil”. In: *Didáctica de la lengua en la educación infantil, 2000, ISBN 84-7738-799-0, orr. 43-70*. Síntesis. Chap. Didáctica de la lengua en la educación infantil, pp. 43-70. ISBN: 978-84-7738-799-2.

Camps, A. (2005). “Hablar en clase, aprender lengua”. In: *Hablar en clase : cómo trabajar la lengua oral en el centro escolar*. Graó. Chap. Hablar en clase : cómo trabajar la lengua oral en el centro escolar, pp. 37-44. ISBN: 978-84-7827-376-8.

Egin beharreko **lana**:

Aurreko asteko testua landu.

Testuen ulerkuntzarako itemak garatu

DAL: -

Oharrak:

Astea 08, 10/30 - 11/02: Ahozko hizkuntza haur hezkuntzan (II)

Irakurgaia:

[0] Haur Hezkuntzako proiektu batzuk (neuk Irene Urriolabeitiak Bizkaiko eskola batean egin-dakoak ekarriko ditut, zuk beste batzuk ekar ditzakezu)

Eusko Jaurlaritzaren Legebiltzarra (2015). “237/2015 Dekretua, Abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzaren Curriculuma Zehaztu Eta Euskal Autonomia Erkidegoan Ezartzen Duena”. In: *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 141.

Egin beharreko **lana**:

Zenbait proiektuen artean bat hartu eta analizatu

DAL: Bitarteko entregagaia, kalifikagarria

Oharrak: -

Astea 09, 11/06 - 11/09: Murgiltze klaseak

Ikusgaia:

Levien, R. (2009). *Immersion*. Short, Drama

Egin beharreko **lana**:

Lanketa gida

DAL: Tutorearekin talde batzarra, azken aurkezpenera eta azken kalifikaziora begirakoa.

Oharrak: -

Astea 10, 11/13 - 11/16: Proiektuen eta DALen aurkezpenak

Irakurgaia: -

Egin beharreko lana:

Proiektuen azalpenak egin eta landu

DAL:DALeko aurkezpena

Oharrak: Aurkezpenetara etortzeak notan eragina du

Ikasgaiko bibliografia

Adquisición y Desarrollo Del Lenguaje En La Infancia (2013). *Adquisición y Desarrollo Del Lenguaje En La Infancia*.

Abasolo, J. (2015). “Transkribatze arauak eta transkripzio helburuak”. Eus. In: *Investigar en psicodidáctica: una realidad en auge - Psicodidaktikako ikerketa gorabidean*. Leioa: Argitarapen Zerbitzua, UPV/EHU, pp. 316-325. ISBN: 978-84-9082-061-2.

Antzuolako HPko HH eta LHkotaldea (2010). “Niños y niñas investigadores: ¿de qué hablamos?”. In: *Los proyectos de trabajo en el aula: reflexiones y experiencias prácticas*. Bartzelona: Graó. Chap. Los proyectos de trabajo en el aula: reflexiones y experiencias prácticas, pp. 29-42. ISBN: 978-980-251-234-8.

Barreña, A. (1994). “Chomskyren arauak eta hizkuntz jabeakuntza”. In: *Elhuyar aldizkaria* 1994, pp. 25-31.

Barreña, A. (2012). “Fonologiaren, lexikoaren, morfologiaren eta sintaxiaren garapena haur euskaldunengan”. In: *Hizkuntzaz jabetzen (0-6)*. Vol. 16. Jardunaldiak. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea, pp. 67-107. ISBN: 978-84-15508-08-3.

Bigas, M. (2000). “El lenguaje oral en la escuela infantil”. In: *Didáctica de la lengua en la educación infantil, 2000, ISBN 84-7738-799-0, orr. 43-70*. Síntesis. Chap. Didáctica de la lengua en la educación infantil, pp. 43-70. ISBN: 978-84-7738-799-2.

Camps, A. (2005). “Hablar en clase, aprender lengua”. In: *Hablar en clase : cómo trabajar la lengua oral en el centro escolar*. Graó. Chap. Hablar en clase : cómo trabajar la lengua oral en el centro escolar, pp. 37-44. ISBN: 978-84-7827-376-8.

Correig, M. and M. Bigas (2001). *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Didáctica de la lengua y la literatura ; 3. Madrid: Editorial Síntesis. ISBN: 978-84-7738-799-2.

Deitch, G. (1972). *The Three Robbers*. Animation, Short

Euskal Irrati Telebista (2017). ‘*Somos capaces de distinguir la lengua materna y paterna desde el vientre*’. Bilbao.

Eusko Jaurlaritzaren Legebiltzarra (2015). “237/2015 Dekretua, Abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzaren Curriculum Zehaztu Eta Euskal Autonomia Erkidegoan Ezartzen Duena”. In: *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 141.

Fernandez, B. (2012). *Hizkuntza patologiak*.

García, I., A. Barreña, M. J. Ezeizabarrena, et al. (2014). “Haur euskaldunen komunikazio-garapena

- neurtzen 30-50 hilabete bitartean: MacArthur-Bates CDI-III tresnaren euskal bertsioa". In: *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria* 88, pp. 33-72. ISSN: 1130-5738.
- Guibourg, I. (2000). "El Desarrollo de La Comunicación". In: *Didáctica de La Lengua En La Educación Infantil*. First. Síntesis, pp. 13-42. ISBN: 84-7738-799-0.
- Gutierrez Mangado, M. J. and M. J. Ezeizabarrena Seguro (2022). *Hotsetik hitzera Nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek?*. Saiopaperak-Hezkuntza-Educa 3. Donostia: Erein Argitaletxea. ISBN: 978-84-9109-224-7.
- Hickman, D., L. Klein, C. F. Britain, et al. (1994a). *Baby It's You. Volume One, In the Beginning., First Steps*.
- Hickman, D., L. Klein, C. F. Britain, et al. (1994b). *Baby It's You. Volume One, In the Beginning., First Steps*.
- Holzwarth, W. and W. Erlbruch (2019). *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*. Trans. by K. Izagirre. Pontevedra: Kalandraka. ISBN: 978-84-95123-79-4.
- Huarte, M. and J. Ozerinjauregi (2012). "Interakzioaren garrantzia euskararen sarrera goiztiarrean". In: *Hizkuntzaren jabetzaz (0-6)*. Bilbo: Mendebalde Kultur Elkarte, pp. 183-208.
- Levien, R. (2009). *Immersion*. Short, Drama
- Núñez, M. and Ó. Villán (2013). *Kamila zebra*. Trans. by K. Izagirre. Pontevedra: Kalandraka. ISBN: 978-84-8464-850-5.
- Ruiz Bikandi, U. and J. K. Igerabide (2010). *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Trans. by I. Iñurrieta Labaien. Universidad del País Vasco. ISBN: 978-84-9860-316-3.
- Sánchez Gutiérrez, E., M. T. Sáez del Castillo Moraza, G. Arteaga Goñi, et al. (1993). "Aho Hizkuntzaren Sustapena Haur Hezkuntzan". In: *Redined*. URL: <http://hdl.handle.net/11162/116481>.
- Tough, J. (1996). *El lenguaje oral en la escuela: una guía de observación y actuación para el maestro*. Spainiera. [2. arg.]. Aprendizaje 34. Madrid: Visor. ISBN: 978-84-7774-034-6.
- Ungerer, T. (1961). *Die drei Räuber*. German. München: G. Lentz.
- Ungerer, T. (2016). *Hiru bidelapurrak*. Basque. Trans. by K. Izagirre. Pontevedra: Kalandraka. ISBN: 978-84-8464-621-1. NULL [1] "\n"